EUSKARAREN EGUNA

EUSKARAREN BIRUSAK JOTA

Izan zaitez ALEAkide
www.alea.eus/harpidetzak

VITORIA GASTEIZ
green capital

Udalak gogorarazten dizu hurrengo baterako utzi behar direla festa, bilera eta ospakizunak, zure eta gainerakoen osasunaren alde

Arduraz jokatu
DISTANTZIA GORDE

eta saihestu betiere jende pilaketak

vitoria-gasteiz.org /koronabirusa

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

ALEA

262

2018-12-03 OSTEGUNA

AZALEKO IRUDIA:
IÑAKI VINAGRET

Aurkibidea

4 Lazarraga sariek euskararen alde alor sozioekonomikoan egindako lana aitortu dute.

10 Lexuri Ugarte: "Euskara zerbitzuak esparru guztietan jasandako ziztada ekonomikoa %20koa izan da".

16 Irati Iciar: 'Zortzi probintzia'.

17 Oier Llinas: 'Konpromisoa'.

18 Iruditan. Kolorez jantzitako atsotitzak.

20 Euskaltegiak, pandemiaren itzalpean.

24 Lautada, proba zelaia berriz ere.

26 Anhitzak, Gasteizko hizkuntzen topaketa.

28 'Gurea ere bada', Zuiako euskalgintzaren liburua.

30 Haur eta gazte literaturaren Gasteizko Udalaren itzulpen saria, Zubizarreta eta Olarrarentzat.

32 Euskararen agenda.

34 Irakurleen txokoa.

Bultzatzaileak

geu ELKARTEA

berria goiena

Argitaratzailea
Arabako Alea Komunikazio Taldea
Zuzendaria
Aritz Martinez de Luna
Erredakzioa
Anakoz Amenabar
Mirian Biteri
Estitxu Ugarte
Mikel Buruaga
Komertziala
Erlantz Anda
Saioa Perez de Munain
Inprenta
GERTU inprimategia

Tirada: 2.800 ale

EGOITZA NAGUSIA
Antonio de Sucre, 1 behea
01003 Gasteiz (ARABA)
Tel.: 945 71 60 09
info@alea.eus

PUBLIZITATEA
publizitatea@alea.eus
Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA
harpidetza@alea.eus
Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015
ISSN: 2386-8961

Asteko kolaboratzaileak: Irati Iciar, Oier Llinas.

ALEAk ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Laguntzaileak

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

araba foru aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Euskara, lanean lehiakor izateko giltzarria

Artgia sorgune aretoak, Asasam elkarteak, Uriarte Industrial enpresak, Museo del Organo jatetxe begetarianoak eta Bertako Igogailuak enpresak jaso dituzte aurtengo Lazarraga Sariak, Arabako alor sozioekonomikoan euskararen alde egindako lanaren aitortza gisa.

Araban euskararen ezagutzak eta erabilerak urtez urte gora egiten jarraitzen dute, eta, horretaz jakitun, arlo sozioekonomikoko entitate askok beraien prozesuetan euskara txertatzeari ekin diote. Euskarak sinesgarritasuna ematen die enpresei, hurbiltasuna, konfiantza, langileak motibatu egiten ditu, komunitatea indartu eta profesionalago egiten ditu. Horren atzean, baina, lan asko dago, eta esfortzu hori aitortu nahi dute Lazarraga Sariek. 2010ean jarri zuten abian sariketa Arabako Foru Aldundiak eta Bai Euskarari Elkarteak, eta harrezkero euskararen alde lan egin duten Arabako hogei entitate eta bost norbanako saritu dituzte; Artgia sorgunea, Asasam elkartea, Uriarte Industrial, Bertoko Igogailuak eta Museo del Organo jatetxe begetarianoa batu dira aurten.

Koronabirusaren pandemiak hala behartuta, sariketa berezia izan da aurtengoa, joan den ostegunean Artiumen ospatutakoa. Edurne Begiristain Berriako kazetariak aurkeztu, eta bertan izan ziren, saridunekin batera, Rober Gutierrez Bai Euskarari Elkartearen zuzendaria eta Lexuri Ugarte Aldundiko Euskara eta Gobernu Irekiko zuzendaria. "Garapen iraunkorrerako giltzarria" da euskara Gutierrezen esanetan, eta hala garatu behar dute administrazioak eta enpresek; aurtengo sarituek euskara "lehiakortasunerako giltzarri" dutela nabarmendu du. Ugartek, bere aldetik, Lazarraga Saria jaso dutenak "atzera urratsik egin ez duten entitateak" direla azpimarratu du eta "aberastasunaren ikur" direla saridunak.

Testua: **Erredakzioa.**
Argazkiak: **Bai Euskarari Elkartea.**

Gasteizko Artium museoan izan zen sari banaketa, joan den ostegunean.

Rober Gutierrez
Bai Euskarari elkartea

Covid-19ak erabat baldintzatu ditu egunerokoa eta enpresen zein administrazioen jarduna hilabete hauetan. Eta bide berri bila, euskarak izan behar duen lekuaz gogoeta egin du Rober Gutierrez Bai Euskarari Elkarteko zuzendariak. "Asko hitz egiten ari gara etorkizuneko baldintza egokiagoak sortzeaz, tokikoari garrantzia emateaz, bertatik eraikitzeaz, elkar zaintzeaz, elkarrekin aritzeaz; konturatzen ari gara eredu inklusiboago bat behar dugula dimentsio guztiak aintzat hartuko dituena", nabarmendu du Lazarraga sarien ekitaldian. "Geroa elkarrekin eraiki behar dugu, eta egoera hau baliatu behar dugu aldaketak egiteko, eragiteko, eta euskaratik eta euskaraz egiteko. Gure lurraldearen eraldaketa eta iraunkortasuna hizkuntzen garapenarekin lotuta doaz".

Irantzu Lekue
Artgia sorgunea

Sorgune eta erakusketa areto bat baino gehiago da Gasteizko Judimendi auzoko Artgia gunea. Artista berriak ezagutzera emateko espazioa ere bada. Eta, hain zuzen, berrikuntzarekin eta euskararekin duten konpromisoagatik jaso dute aurtengo Lazarraga sarietako bat. Bai Euskarari Ziurtagiria dute, eta zerbitzua euskaraz eskaintzen dute galerian bertan zein kanpora eramaten dituzten lanetan. "Emakume artisten lanak ezagutarazteko helburuarekin batera, hasieratik gure ardatzetako bat euskara izan da Artgian", azaldu du Lekuek saria jasotzean, eta saria konpromiso hori berresteko baliagarri izango dela nabarmendu du. "Garaiak oso arraroak izaten ari dira, pertsonalki oso urte zaila izan da, eta sari hau bultzada da aurrera jarraitu ahal izateko".

Patri Aldama
Asasam elkartea

Menpekotasun egoeran dauden pertsonek zerbitzua euskaraz jasotzea, beraien hizkuntza eskubidea izateaz gainera, beharra ere bada. Aiarako Asasam elkartean urteak daramatzate menpekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta zikloko ikasle euskaldunak hartzen, bertan egiten dute lantokiko prestakuntza modulua euskaraz, eta horixe nabarmendu nahi izan dute Lazarraga sariarekin. "Eskerrik asko gurekin pentsatzeagatik sari hau ematerako garaian, baina benetan saria merezi dutenak langileak dira, haiek izan dira ikasleekin euskara ahoan izaten dutenak", azaldu du Asasameko kide Patri Aldamak. "Asko ez gara euskaldunak, baina saiakera egiten dugu, eta esfortzua urteko 365 egunetan gure hizkuntzak behar duen lekua izan dezan".

Maider Uriarte
Uriarte Industrial enpresa

2018. urtean eskuratu zuen Gasteizko Uriarte Industrial enpresak Bai Euskarari ziurtagiriaren "Bidean" maila, Lanabes proiektuak eskaintzen zituen pilotajeetako bati esker. Zaila den sektore industrial honetan konpromisoa hartu zuten euskara egunerokoan txertatzeko. "Gauza batzuk euskaratzen hasi ginen: gauza sinpleak, emailak, kartelak, dokumentu batzuk... eta jendea euskaraz egitera animatzen, ahal den neurrian... Hortan hasi gara, eta Bai Euskarari bidelagun edukita errazagoa da", azaldu du Uriartek. Haien antzeko beste enpresa batzuk animatu nahi dituzte ahalegin hori egitera, eta euskara ere lan munduan txertatu daitekeela erakustera. "Balio dezatela sari hauek lan munduan pixkanaka-pixkanaka euskara gehiago entzuteko".

Jon Rey
Museo del Organo jatetxea

32 urteko ibilbidearen ostean, historikoa den Museo del Organo jatetxe begetarianoa 2019. urtean ekintzaile talde gazte batek hartu zuen, eta Bai Euskarari ziurtagiria eskuratu zuten euskara txertatzen laguntzeko. "Euskara gure proiektuaren ardatzetako bat denez, oso garrantzitsua da sari hau jasotzea", eskertu du Jon Rey bazkideak Lazarraga saria. Harekin batera, beste bi bazkide dira jatetxean, eta euskararekiko hiru egoera eta hiru harreman desberdin daudela azaldu du, maila desberdinetan, baina denek dutela lotura estua. "Jatetxean komunikazioa euskaraz egiten dugu, eta euskaldunak ez direnak ere saiatzen dira apurka-apurka gehiago ulertzen". Pandemiaren eraginez, etena egin behar izan dute tarte batez jatetxean, "laster indarberrituta bueltatzeko asmoz".

Iban Sanchez
Bertako Igogailuak enpresa

Bertako Igogailuak enpresak aurten eskuratu du Bai Euskarari ziurtagiria, "Bidean" mailakoa. Hego Euskal Herrian errotuta, enpresa gaztea da, hamar urte baino gutxiago ditu, eta bere sektorean ez dira asko haiek duten filosofiarekin; bezeroekiko hurbiltasuna landu eta euskara ardatz moduan dutelako jaso dute Lazarraga saria. "Bertakon ezin dugu ulertu enpresa munduan euskara ez erabiltzea, ezinezkoa litzateke guretzat zerbitzua bakarrik erderaz eman behar izatea", azaldu du Iban Sanchezek. 1500 bezero baino gehiago dituzte, eta %75 bat euskarak erakarrita egin dutela esan du, "haien ama hizkuntza erabiltzean mezua askoz ere zuzenago heltzen zaielako". Enpresa guztiei, eta bereziki sektorekoei, bide horretan pausoak ematera gonbidatu ditu: "Ez da lana webgune bat euskaraz edukitzea egun, eta gutxieneko batzuk merezi ditu bezeroak".

ERAKUSKETAK

Zeru bat, hamaika bide.
Praktika artistikoak Euskal Herrian 1977-2002 aldian

June Crespo.
Helmets
Irekiera: 2020.12.04

Moyra Davey.
Lanak | Obras | Works

KBK 2020.
Ez dakit zer pasatzen den azken aldi honetan
Irekiera: 2020.12.28

JAI.
Zerbait gertatzeko derrigorrezko desbideratzea

JARDUERAK

2020.12.04, 18:30
Elkarrizketa June Cresporekin

2020.12.12, 18:00
Zikloa: Zinema feministaren historiak

LORATEGItik abiatuta
Zeharkako bisita gidatuen programa

Familientzako lantegiak
Artium txikia, igandero
Good Afternoon Artium!, larunbatero

ARTIUM
MUSEOA
Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoa
Centro-Museo Vasco de Arte Contemporáneo

www.artium.eus

"Erabili egiten ez badugu, euskarak ez du etorkizun onik"

LEXURI UGARTE ARETXAGA ARABAKO EUSKARA ETA GOBERNU IREKIKO ZUZENDARIA

Koronabirusaren pandemiak eragina izan badu ere, Arabako Diputazioko Euskara zerbitzuak ezarritako hasierako helburu estrategikoak mantentzeko gai izan dela azpimarratu du Lexuri Ugarte Aretxaga laudioarrak; eta hemendik aurrerako asmoa ere berdina dela dio, beti ere, "elkarlanean".
Testua: **Mirian Biteri.** Argazkiak: **Erlantz Anda.**

Pasa den urtean, erronka berria hartu zuen bere gain Lexuri Ugarte Aretxagak (Laudio, 1979): hain justu ere, Arabako Foru Aldundiko Euskara eta Gorbernu Irekiko zuzendaritzarena. Datozen lerroetan, orain arte egindakoaz, euskarak azken hamarkadetan Araban izandako bilakaeraz, Diputazioaren Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoaz eta hemendik aurrerako asmoen inguruan hitz egin du, besteak beste.

Euskara eta Gobernu Irekiko Zuzendariaren kargua hartu zenuen iaz. Nola hartu zenuen erronka?

Hasieran beldur asko nion erronka handiari, txiki ikusten nuelako nire burua horretarako. Baina, banekien ekin behar niola eta horrela hasi nintzen, jakinda administrazio hau nahiko urrun geratzen zitzaidala, bereziki Aiaraldean sortua naizelako eta beti ere nahiko urrun geratzen zaigulako. Lanean sartu eta berehala konturatu nintzen administrazioak ahalegin handia eskatzen duela.

2020 urte 'xelebre' honekin, ziur orain artekoa ez dela hasiera batean espero zenuena bezala joan, ezta?

Bai, eta orduan konturatu nintzen oso desberdina zela aurretiaz izandako beldurra edo nolabaiteko ezinegon hura. Jakinda guztiontzako erronka berria bazetorrela, baina hasiberrientzako bikoitza izango zela. Hala eta guztiz ere, jokatzeko moduan pandemiak eragina izan badu ere, hasierako helburuak tinko mantendu ditut; hau da, euskarak behar duen bultzadari eutsi diogu. Eta hori da hemendik aurrerako asmoa ere. Pandemiak bortizki jo gaitu, eta eragina izango du, baina ziur naiz aurrera aterako dugula, elkarlanean.

Ezinbestekotzat jotzen duzu orduan elkarlana...

Bai. Norbanakoak aurrera atera nahi badu, lagunak izatea funtsezkoa dela erakutsi didate txikitatik etxean; kasu honetan, lankidetza lagun moduan ulertuta. Funtsezkoa da ez bakarrik beste administrazio batzuekin batera jardutea, baizik eta elkarte, kolektibo eta norbanakoekin batera. Adibide garbiena da Diputazioan dugun Euskararen Batzordea; euskalgintzan aritzen garen hainbat kidek osatzen dugu, eta oso garrantzitsua iruditzen zait bakoitzak egiten dituen ekarpenak. Horrekin lotuta, uste dut guk guztion arteko harremanak sendotzeko bidean gaudela.

Pandemiak eragindakoetara itzulita, egungo egoerara egokitu beharra izango zenuten Aldundiko Euskara Zerbitzuan ere?

Bai. Esan bezala, aurreikusita genituen helburuei eusteko adorea izan dugu, esparru ekonomikotik ziztada izan badugu ere. Horrek, baina, ezin du gure helburua ahuldu. Baliabide ekonomikoak murritzagoak izango dira, baina positibo begiratu

behar diogu etorkizunari. Txikitasunean handi da euskara; Arabak asko dauka esateko, eta funtsezkoa da txikitasun hori handi erakustea; baina, nire ustez, salto kuantitatibotik baino, kualitatibotik bideratuta joan beharko litzateke gure ahalegina.

Zenbatekoa izan da gidatzen duzun zerbitzuak jasandako murrizketa ekonomiko hori?

Ziztada %20koa izan da, esparru guztietan. Baina, nik azpimarratuko nuke zenbait aurrekontu lerro bere osotasunean mantentzeko gai izan garela. Adibidez, Euskaraldia mantendu dugu. Bestetik, badakigu tokian tokiko hedabideak ere funtsezko erreminta garrantzitsuak direla herritarrengana heltzeko eta horiei eskaintzen genien lerroa, 193.400 euro horiek, mantentzea lortu dugu. Hainbat esparru estrategikori eutsi behar geniela ikusi dugu, eta horrela izan da. Gure departamentuan bertan beste zuzendaritza batzuek jasotako zaplaztekoa handiagoa izan da; horrek euskararekiko konpromisoa erakusten du.

Lehentasuna izan da orduan...

EUSKARAK 365 EGUN

Mendia Optika

www.mendiaoptika.eus

Lexuri Ugarte, elkarrizketa erdian. ERLANTZ ANDA

Beti. Konpromisoa hori izan da, zehar lerroa izan behar du eta gogor gabiltza lan egiten. Adibide batekin azalduko dut. Pasa den astean banatu genituen Lazarraga sarietan, esaterako, Asasam ongi izate saileko Aiaraldeko elkarte bati eman genion saria, horretan euskarak duen garrantzia erakusteagatik. Horrekin esan nahi dudana da arlo sozioekonomikoan ere buru-belarri gabiltzala lanean pausu berriak ematen; bereziki, enpresa, saltoki eta ostalaritzan euskarak toki gehiago izan dezan.

Pausu berri horiek Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoan barruan daude. Zeintzuk dira horren lan-ildo nagusiak?

Alde batetik, gazteak eta haurrak daude; beste alde batetik, badakigu aisialdian, kirolean eta kulturan euskarak pausu garrantzitsuak eman behar dituela. Aipatu bezala, arlo soziokonomikoari ere keinu bat egin nahi diogu. Jabe gara eskola garaian euskara erabiltzen dela, baina lan mundura salto egitean euskarak horma bat topatzen du; eta, nire ustetan, ezinbestekoa da arlo horretan ere presente egotea.

Zer leku dute teknologia berriek guzti horretan?

Oso garrantzitsuak dira. Digitalak bihurtzen ari gara, haurrek eta gazteek modu garbian erakusten digute digitalizazioak duen garrantzia. Eta euskarak erreminta digitalak behar ditu; Eusko Jaurlaritzarekin batera ari gara lanean erreminta horiek eskura jartzeko. Euskara, berez, digital bihurtu behar dugu. Gurean, esaterako, hasi gara pausuak ematen, webgune batzuk euskaratzen edo esparru sozioekonomikoan laguntzak eskaintzen.

Guzti horiek aurrera eramateko bitartekoak behar dira, eta krisi hotsak entzuten hasiak gara; hortaz, zer aurreikuspen dituzue urteko aurrekontuetan Euskararekin lotutako gaietarako?

Gure asmo zurruna eta irmoa da orain arteko konpromiso guztiei heltzea, horren adierazle da izan ditugun aurrekontu guztiak mantenduko direla. Ahaleginak eta bi egingo ditugu,

hitzarmen bitartez, berme bat eskaintzeko hainbat eragileri eta ekintzari, eta plan estrategikoan aurreikusitako ildo estregikoei ere eusteko.

Mantendu bai, baina murrizketarik aurreikusten duzue?

Oraindik ez dakigu ezer. Hala eta guztiz ere, jakin dezatela arabar guztiek konpromisoa badagoela euskarari eusteko; hau da, gure lurraldean sortzen diren ekimenak eta proiektuak laguntzeko.

Diputazio barrura begiratuta, euskarak Aldundiko sail guztietan presentzia izan beharko luke. Hori gauzatu dadin neurriak hartzen ari zarete?

Zehar lerroa aipatu dut lehen, eta hori da ideia garrantzitsuena, gu baikara sarea ehuntzen ari garenak. Azpimarratzekoa da departamentu guztiekin harreman zuzena dugula euskara presente izan dezaten; euskara zerbitzua prest dago departamentu guztiei laguntzeko beraiek ere euskara presente izan dezaten, eta epe motz-ertainera lortuko dugu sail guztietan presentzia izatea, ziur naiz.

Bestalde, oztopoak oztopo, Euskaraldian murgilduta gaude, eta herritarrek beste behin euskararen alde

"EUSKARA ZERBITZUAK ESPARRU GUZTIETAN JASANDAKO ZIZTADA EKONOMIKOA %20KOA IZAN DA"

"GURE ASMO ZURRUNA ETA IRMOA DA ORAIN ARTEKO KONPROMISO GUZTIEI HELTZEA"

"EPE MOTZ-ERTAINERA LORTUKO DUGU DIPUTAZIOKO SAIL GUZTIETAN EUSKARAK PRESENTZIA IZATEA"

pausuak ematen jarraitzeko gogoa erakutsi dute. Albiste pozgarria, ezta?
Oso pozgarria, bai. Hau guztia hasi baino lehen, Kike Amonarrizekin elkarrizketa bat izan nuen eta aurtengo Euskaraldiaren helburuetako bat zein zen galdetu egin nion, salto kuantitatiboa edo kualitatiboa egitearen gainekoa. Berak erantzun zidan kopurua biderkatzea buruan bazuten ere, kualitatiboa zela helburu nagusia; ni horrekin bat nator eta uste dut lortzen ari garela. Bestetik, pentsa dezagun 18 urtetik beherakoek ez dutela parte hartzen eta gu adibide garbiak izan behar garela, hurrengo Euskaraldira begira, beraiek ere parte har dezaten.

Argi dagoena da euskarak bilakaera ona izan duela azken urteotan Araban. Zein izan daiteke arrazoia?
Gasteizek, azken 30 urteetan, beste herrialdeetatik etorritako euskaldun asko hartu zituen; gizarte segmentu hori gaztea zen, euskarak balio erantsia duela erakutsi duena. Norbanakoek egin dute ahalegin hori, eta horren fruitua da sortu dituzten elkarte berriak euskararen presentzia handitzeko. Egoera hori beste eskualde batzuetara igaro da. Oso adierazgarria da Arabako Errioxako edo Lautadako kasua. Azken honetan esfortzu ikaragarria egiten ari dira euskara oraindik ere presenteago egoteko. Horiek guztiek aldarrikapen serioa egin diete erakunde ezberdinei eta *feedback* bat sortu da; hori dugun egoera onaren adierazle da. Egun, hamar gaztetatik zortzi euskaraz ulertzeko gai dira.

Ulertzeko gaitasuna bai, baina erabileran hanka-motz jarraitzen dugu...
Hain justu, hori da gure hurrengo erronka, ahaztu gabe oraindik badagoela jende asko gure hizkuntza ezagutzen ez duena. Ezagutu bai, baina erabili egiten ez badugu, euskarak ez du etorkizun onik.

Etorkizunera begira, itxaropentsu egoteko arrazoiak ditugu?
Sekulako altxorra dugu, pribilegiatuak gara, Europako hizkuntza zaharrenetarikoa dugu, eta hori erabilita, distira atera dezakegu. Beraz, erabili dezagun. Baina, beti ere ahaztu gabe elkarlana funtsezkoa dela. Hasten baldin bagara bakoitza bere bidea jorratzen eta konturatzen ez baldin bagara euskara guztiontzako aterkia dela, ez dugu zereginik.

GABONETAN OPARITU

artepan

PANETTONE
PANETTONEA

TURRÓN TRUFA DE COCO
KOKO-TRUFAZKO TURROIA

LICORERAS
LIKORE-ONTZIAK

TURRÓN YEMA
GORRINGO TURROIA

MANTECADO DE ALMENDRA
ALMENDRAZKO MANTEKATUA



TURRÓN VASCO
EUSKAL TURROIA

TRUFAS
TRUFAK

www.artepan.com

Zortzi probintzia

IRATI ICIAR
GEU ELKARTEKO LEHENDAKARIA

Izugarri disfrutatzen nabil euskararen zortzigarren probintziaren udazkena. Aspaldi esan ziguten euskarak sarean, hodeian, mundu digitalean, presentzia handiagoa behar duela, eta oraingoan –behartuta bada ere– ekin diogu. Askotan presaka, modu amateurrean, intuizioz modu desordenatu eta desorekatuan, baina edukiak sortzen gabiltza. Ez naiz autokonplazentzian eroriko, ez, argi daukat asko dagoela egiteko, baina hutsuneen kontzienteago izateko balio izan badu, ongi etorria izan dadila egoera distopiko hau.

Bai, esango didazue sarea esker txarrekoa dela, efimeroa, *voyeur*ra, interakzioa behar dugunean kasurik egiten ez diguna, aurrez aurreko ekimenekin alderatzean deskafeinatua… Baina onartu behar didazue lengoaia eta komunikazio aukera propioak eskaintzen dituela eta euskarak horiek guztiak ere behar dituela.

Ez zarela sare sozialen zalea? Mundu digitala ez da hori bakarrik, lagun, uste duzuna baino askoz ere digitalizatuago zaude. Poltsikoan daramazun telefonoa uneoro konektatuta dago, baita kutxazaina edo tranbiako tiket makina ere. Guzti horiek, guztiek, besteak beste, zein hizkuntza erabili duzun begiratzen dute. Eta hor ere euskaldunak garela erakutsi dezakegu.

Hurbildu zaitez, are gehiago, euskararen zortzigarren probintziara. Kaotikoa, kromatikoa, kakofonikoa batzuetan, baina beti sortzailea, brillantea, harrigarria aurkituko duzu. Jarriko dugu hitzordua?

"HURBILDU ZAITEZ, ARE GEHIAGO, EUSKARAREN ZORTZIGARREN PROBINTZIARA"

Konpromisoa

OIER LLINAS
KAZETARIA

Nire iruditerian Gabonetako argien piztea eta Euskararen Nazioarteko Eguna bukatzear dagoen urteari begirada bat emateko mugarriak dira. Jai batean berokia hartzerakoan bezala: oraindik ez zara joan, baina agur esateko ordua heldu da.

Aurten Gabonetako argiak pixka bat lehenago piztu dituzte, eta Euskararen Eguna Euskaraldiari eskua emanda heldu zaigu. Beraz, aukera paregabea gure hizkuntzaren inguruan gogoeta bat egiteko. Honakoetan, askotan gertatzen zaigu "makrora" goazela, hau da, euskararen egoera gure herrialdean nola dagoen aztertzera edo erakunde publikoek zer egin beharko luketen iradokitzera.

Haatik, gure inguruan gertatzen dena baino, Euskararen Egunean gure barnean gertatzen denari erreparatu beharko genioke. Norberaren buruarekin erabat zintzo izan eta euskararekiko ditugun benetako jarrerak aztertzea: zer egiten dudan ondo, zer hobetu nahi dudan, eta abar.

Behin hori eginda, eta urte berria hain gertu edukita, zergatik ez erabili Euskararen Eguna konpromiso pertsonal bat hartzeko? Gauza pertsonala eta ez oso ikusgarria izan behar da, gure bizitza euskaldunagoa eta aberatsagoa egingo duen zerbait. Liburu gehiago euskaraz irakurtzea izan daiteke. Edo, zergatik ez, gertuko pertsona batekin edo birekin euskaraz hitz egiten hastea.

Bai, oso zaila egiten dela eta ohiturak indar asko duela esango dute askok. Egia da hasieran kostatzen dela, batez ere, urteak badaramatzazu pertsona horrekin erdaraz egiten. Baina, egunez egun eskemak aldatuko dira, eta, hilabete batzuen buruan, arraroa izango dena da pertsona horrekin hizketaldi bat erdaraz edukitzea.

Erabil dezagun Euskararen Eguna gure ohiturak aldatu daitezkeela demostratzeko. Azken finean, Araba euskaldunago bat egiteko ahalmena gugan dago eta hitz batera gaude, besterik ez.

"ERABIL DEZAGUN EUSKARAREN EGUNA GURE OHITURAK ALDATU DAITEZKEELA DEMOSTRATZEKO"

IRUDITAN

Kolorez jantzitako atsotitzak

Euskararen Nazioarteko Eguna aitzaki hartuta, Gasteizko Ekialde ikastetxeko batxilergo artistikoko ikasleek euskarazko esaera zahar eta atsotitzak irudiz jantzi dituzte, emaitza ezin hobearekin.

Bidali zure argazkiak testu labur batekin: erredakzioa@alea.eus

JASONE ALFONSO

MARKEL MARTIN

OLATZ GARCES

JULEN ZIARRUSTA

IZARO CUESTA

HAIZEA ASARTA

LUCIA LASAGA

XABIER OGUETA

ENEKO ANTA

Aurrez aurre euskaltegietan

Ahalegin ekonomiko handia egiten ari dira urteotan Arabako AEK-ko eta IKA-ko euskaltegiak aurrez aurreko ikastaroen alde, kontuan izanik ikasle gehienentzat horiek direla preziatuenak.

ESTITXU UGARTE LOPEZ DE ARKAUTE

Ikasturte berezia izaten ari da urte honetakoa euskaltegietan. Aurrekoa nola edo hala bukatu zuten pandemiari egokitzeko ia astirik izan gabe; eta udaren ostean denetariko neurriak –kostu ekonomiko handia ekarri dutenak– hartu behar izan dituzte Arabako euskaltegiek ikasleak behar bezala artatzeko eta aurrez aurreko eskolak bermatzeko. AEK-ko Aintzane Praderak eta IKA-ko Joxemi Reguerok egoeraren berri eman dute.

Nahiz eta matrikulazioetan jaitsiera nabarmena izan, ikasle gehienek euskara ikasten jarraitzeko egin duten apustua nabarmendu du AEK-ko Arabako arduradunak. "Egoera ez da nahi dugun modukoa, baina ikasleak gurera etorri izana eta ikasteko gogoa izatea oso puntu positiboa izan da. Guk aurten pilak jarri behar izan ditugu. Jaitsiera egon da Euskal Herri osoan, logikoa den moduan, baina mantendu dugu ikasturtea".

Matrikula gutxiago izan dituzte ere Gasteizko IKAko euskaltegietan. Reguero zuzendaritzako kideak kopuruak zehaztu ditu: "Jende gutxiagok eman du izena eta jende gutxiagorentzat tokia genuen. Aurten, 800 bat ikasle ditugu euskaltegietan, eta iaz 1.000 inguru, %20ko jaitsiera hain zuzen".

Aintzane Pradera da Arabako AEKko arduraduna. AEK

Halere, otsailetik aurrera galdutako matrikulazio batzuk berreskuratzea espero dute, gela gehiago izango baitituzte Gasteizko Paraguay kalean atondu duten euskaltegi berrian. "Horrekin ordezkatu nahi izan ditugu galdutako hamahiru gela, eta beste lokal bat ere utzi behar izan dugu egungo baldintzekin oso txikia geratzen zelako". 140.000 euro gastatu behar izan dituzte konpondu eta lokal berria atondu ahal izateko.

Ikasle gutxiago gelan

Pandemiaren aurkako neurriak betetzeko, ikasgeletan egon daitezkeen ikasleen kopurua murriztu behar izan dute, eta horrek azpiegiturak egokitzera behartu ditu euskaltegiak, muga asko zituztelako espazio aldetik. "Euskaltegi bakoitza modu batekoa da –esan du AEK-ko irakasleak–, ez daude bi berdin, eta horrek ekarri du toki batzuetan sei ikasleren taldeak osatu ditugula, eta beste batzuetan handiagoak". Egoera berriak talka egin du euskaltegien ohiko funtzionamenduarekin, talde bat martxan jartzeko orduan gutxieneko kopuru handiagoak baitituzte. "Talde batzuetan, bi gela libre egonda, bitan banatu dira, bi azpitaldetan, eta irakasleak biak artatzen ditu, horrek dakarren desgastearekin. Baina hori aukera bat da ikasleek aurrez aurreko klaseak mantendu ahal izateko".

Beste aukera bat da konbinatuan ibiltzea; alegia egun batzuetan euskaltegian eta beste egun batzuetan etxetik egiten dute lana ikasleek. Irakasleak etxean egiteko lanak bidaltzen dizkie eta plataforma dute eskolak *online* emateko. Beste ikasle askok baliabide teknologikoak ez dituztelako arazo gehiago dituzte, baina posta elektroniko arruntarekin eta telefonoz aritzen dira horiekin.

"Formakuntza egin dugu, ikastaroak egin ditugu *online* mundu horretatik ahalik eta hoberen artatzeko ikasleak. Ez du ematen beste konfinamendu orokor bat etorriko denik, baina konfinatzen baldin badituzte ikasleak edo irakasleak, kasu horietan gure plataforma erabili ahal dugu, baita bideo-bilerak egiteko ere".

IKA-n, berriz, bi estrategia nagusi erabili dituzte pandemiaren ondoriozko neurriei aurre egiteko. Batetik, lokalak moldatu; obrak egin dituzte euskaltegi guztietan eta aforoa handitu egin dute modu horretan. "Horrela lortu dugu gehienetan gutxienez zortzi lagun sartu ahal izatea legezko baldintza guztiak beteta. Iaz, hamaika laguneko ratioa geneukan eta aurten batez beste bederatzikoa dugu". Halaber, txandaka ibiltzen dira gela batzuk, *online* eta aurrez aurrekoak konbinatuz. Izan ere, eskola telematikoak eskaintzea izan da bigarren estrategia. Horietan iaz baino askoz jende gehiago dagoela esan du Reguerok; 50 lagun guztira, eta 22 talde osatu dituzte.

Aldaketa horiekin batera, ahalegin ekonomiko handia egin behar izan dute euskaltegiek. "Baliabide teknologiko gehiago behar izan ditugu eta pertsonalari begira ere kontua da ordezkoak asko direla eta kontratazio asko egin behar izan ditugula", aipatu du Praderak. Horrez gain, ratioak eta gutxieneko kopuruak jaisteak kalte egin die. AEK-ren kasuan, gainera, hurrengo urteko Korrikaren edizioa bertan behera utzi behar izateak eragin ekonomikoa ekarriko du.

Udala eta Aldundia

Erakundeen erantzunaren inguruan, Reguerok aipatu du HABEk nahiko "koltxoi handia" jarri zuela eta ziurtatu zuen diru-laguntzak jasoko zituztela euskaltegiek; beraz, horretan ez dute galerarik izango. Matrikula kopuruagatik eta egin dituzten

gastuengatik izango dituzte galerak, "baina maila batean apaltzen dira HABEk emandako diru-laguntzekin".

Alta, beste administrazio batzuek hartutako neurriekin kritiko hitz egin du IKA-ko arduradunak."Egia esan ez dute gehiegi lagundu; Udalak eta Diputazioak osatutako taldeetan, galerak izan ditugu. Adibidez, Udalaren guraso taldeen erdiak sortu dira. Neurri batean izango da gurasoek ez dutelako izena eman, eta beste neurri batean Udalak iaz hartu izan dituen erabaki okerrarengatik: hain zuzen ere, taldeak bertan behera uztea nahiz eta eskaintza telematikoa izan".

Beste alde batetik, HAEEn eta Udalaren kasuan irakasleen bajak izatekotan horiek beste irakasleekin ordezkatzea eskatzen dituztela aipatu du Reguerok, eta ez dutela modu telematikoan jarraitzeko aukera ematen. "Ordezkoak bidali behar izanez gero, oso aukera gutxi izaten ditugu; irakasle berriak hartzea ia ezinezkoa da guretzat, hezkuntzako zerrendak beteta daudelako, eta ez dute kontuan hartzen".

Joxemi Reguero IKAko zuzendaritzako kidea da. JUANMA GALLEGO

legutioko udala
legution euskarak
365 egun ditu!
EUSKARALDIA

kutxabank

Kutxabank
EUSKARALDIArekin

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra

Lautada, berriz proba eremua

Bikoteetan eta lagun taldeetan hizkuntza ohiturak aldatzeko Eusle eta Ulerrizketa metodologiekin ikerketa egiten ari dira Soziolinguistika Klusterra eta Lautadako Euskararen Komunitatea.

ERREDAKZIOA

Soziolinguistika Klusterrak, Pello Jauregi irakaslearen zuzendaritzapean, hizkuntza ohiturak aldatu eta euskararen erabilera areagotzeko metodologiak sortu ditu 2010etik, Aldahitz proiektuaren bitartez. Metodologia horiek lan munduaren testuinguruan sortu eta probatu izan dira batez ere, baina azken urteetan beste testuinguru batzuetara egokitzeko proba pilotuak ere martxan jarri dira.

Hala, 2020ko udaberritik, Soziolinguistika Klusterra eta Arabako Lautadako Euskararen Komunitatea elkarlanean ari dira hizkuntza ohiturak aldatzeko metodologiak harreman afektiboetan ere baliatzeko, eta arreta berezia jarriz euskararen norabidean gertatzen diren prozesuetan.

Alde batetik, hiru lagun talde edo kuadrillatan Eusle metodologia praktikan jarri dute; bestetik, Lautadako herrietako bost bikotek Ulerrizketa metodologia baliatu dute. Irailean zehar, lagun talde zein bikote horiek aipatutako metodologietan zehaztutako rolak baliatzeko beharrezko azalpenak eta formakuntza jaso zituzten, Jauregiren eskutik.

Zortzi asteko proba

Baldintzak ongi ezagutu eta gero, proba pilotu batean parte hartu eta hizkuntza ohiturak aldatzeko ahalegina egiteko erabakia hartu zuten Lautadako bizilagunek. Ondoren, zortzi astetan zehar, praktikan jarri zuten adostutakoa.

Soziolinguistika Klusterra arduratu da esperientziaren jarraipenaz eta prozesu osoan zehar datuak biltzeaz. Orain arte bildutakoak eta hiru hilabete pasa ostean esperientziak utzitakoa ezagutzeko egingo den azken datu-bilketarekin, proba pilotu horien emaitzak 2021eko udaberrian izatea aurreikusi dute Soziolinguistika Klusterrak eta Lautadako Euskararen Komunitateak.

Proiektuak Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren, Arabako Foru Aldundiaren eta Lautadako Kuadrillaren finantziazioa izan du.

Hizkuntza ohiturak aldatzeko metodologiak harreman afektiboetan duen eragina aztertu dute Lautadan. LEK

Eusle

Aldahitz egitasmoaren lehen fruitua izan zen, 2012an argitaratua. Lan arloan probatu zuten. Harremana maiz duten kideen artean eragitea du helburu, betiere bi baldintzarekin: talde osoak euskaraz ulertzeko gaitasuna edukitzea eta ohiturak aldatzeko borondatea izatea. Eusle figura sortu zuten –solasaldietan euskarari eusteko konpromisoa zuen–. Metodologia horretan oinarrituta garatu zen gerora Euskaraldiaren planteamendua: ahobizi eta belarriprest.

Ulerrizketa

Bi soslaitako hiztunen arteko elkarrizketak ditu helburu: euskaldunen eta euskaldun hartzaileen arteko solasaldiak euskarazkoak izatea. Jomuga da hartzaileen ulermena baliatzea euskaraz mintzatu ahal izateko. Oraino lan arloan egin dituzte probak. Parte hartu behar duten kideek formazio labur bat jasotzen dute, beren arteko solasaldiak nola bideratu, eta ondoren ez dute zuzeneko esku hartzerik egiten: harreman naturaletan ezartzen dute Ulerrizketa.

Gasteizko hizkuntzak mintzo

Urritik azarora bitartean AnHitzak Gasteizko Hizkuntza Aniztasunaren Topaketak antolatu dituzte, hirian hitz egiten diren 50 hizkuntzatik gora nabarmentzeko asmoz. Urtarrilean aurkeztuko dute gogoeta.

ERREDAKZIOA

2016an, lehen aldiz, AnHitzak Gasteizko Hizkuntza Aniztasunaren Topaketak antolatu ziren Oihaneder Euskararen Etxean, eta ordutik urtero errepikatu dute jarduera. Estimazioen arabera, Gasteizko kaleetan 50 hizkuntza baino gehiago erabiltzen dira. Horren guztiaren balioa aitortu nahi izan dute proiektu honen bitartez, eta hiriko hizkuntza aniztasunaz, transmisioaz eta euskararekiko harremanak izan dituzte solasgai.

Aurtengo edizioan, osasun egoerak baldintzatuta eta segurtasun neurri bereziak tarteko, taldez talde ari dira garatzen. Topaketa txiki horietan testigantzak jasotzen ari dira, eta bideoetan partekatzen ari dira Gasteizko Udalaren webgunean. Gainera, ALEA saio guztien laburpena bideoz jasotzen ari da, eta astean behin horietako baten berri duzue *alea.eus/bereziak/anhitzak-2020* espazioan.

Amaitutakoan, 2021eko urtarrilean, prozesu osoaren berri emango du Gasteizko Udalak, oraingoan ere berak antolatu baititu topaketak Euskaltzaleen Topagunea, Gurutze Gorria, Adra, Goian, Caritas, EPA Paulo Freire, Denon Eskola eta elkarte gehiagoren laguntzarekin.

Mendebaldeko Saharako emakumeek hasiera eman zieten Gasteizko Hizkuntza Aniztasunaren Topaketei. Hassania hizkuntza eta euskararen garrantzia izan ziren hizpide AnHitzak topaketen lehen saioan. Urriaren 12a, Sahararen Batasun Nazionalaren eguna, baliatu zuten topaketa egiteko.

Hassania hizkuntza eta euskararen garrantzia aztertu dute. MIKEL BURUAGA

Bigarren saioan Senegaleko hainbat lagun bildu ziren, Mbolo elkartearen bidez. Azaldu dutenez, Gasteizen Senegaleko komunitate handi samarra dago; 350 gasteiztar baino gehiagok jatorri senegaldarra dute. Euren jatorrizko herrialdean hainbat hizkuntza hitz egiten badira ere, wolofera da zabalduena.

Zeinu hizkuntzara ere hurbildu da AnHitzak jarduera, topaketen hirugarren saioan hain zuzen ere, eta Arabako Gorrak elkartearen laguntzaz aritu dira hausnartzen.

Halaber, Gasteiz-Rodina kultur elkarteari esker, euskarari buruz eta bulgarierari buruz egin da gogoeta. Ibaiondo gizarte etxean izan zen topaketa, han biltzen baitira larunbat arratsaldeetan, haurrekin bulgariera eta hango geografia eta historia lantzeko.

Pular hizkuntza ere izan dute hizpide aste hauetan, Gineako Errepublikan hitz egiten den hizkuntzetako bat, Hally Pular elkartearen eskutik; Rif-eko amazighaz ere aritu dira; dariyaz (Marokoko arabiera); katalanaz, Gasteizko Casal Català d'Àlabaren eskutik; eta euskaraz, GEU elkartearen eta Mintzalagun egitasmoko hainbat kideren eskutik. Halaber, Landazuri eskolako esperientzia ere jaso dute, kultur eta hizkuntza aniztasunaren inguruan.

iraganeko MEMORIA egungo FAXISMOaren kontra

Abenduak 10

18.30

Alternatiba Araba
(Los Herran 25)
GASTEIZ

AURREZ AURREKOA
COVID-19aren KONTRAKO
NEURRIEKIN EDO ONLINE

Oskar Matute

Alternatibako bozeramailea

Julia Monge

Feminista eta Intxorta 1937 Kultur Elkarteko kidea

Iñaki Martín

Militante antifrankista

EZINBESTEKOA LEKUA GORDETZEA
prentsa@alternatiba.net

Alternatiba

Lanean jarraitzeko akuilua

Azken 40 urteetan Zuia euskalduntzeko bidean egindako lanak nabarmendu ditu Oier Azkarragak 'Gurea ere bada' ikerketa lanean; militanteei omenaldia eta "etorriko direnei" ekarpena egin nahi die liburuarekin.

ANAKOZ AMENABAR

Eugenio Murga ikerketa-bekari esker, Zuian euskarak izan duen bilakaeraren inguruko lana plazaratu berri du Oier Azkarraga herrikideak, "udalerria berreuskalduntzeko norabidean urrats ausartak egin izan dituztenak omentzeko". *Gurea ere bada. Zuia euskaldunaren historia laburra* liburuak bertatik bertara, barrutik, euskalduntzea bizi izan duten lekukoekin osatutako azken 40 urteetako ibilaldia da.

Orain dela 140 bat urte Zuian ez zen euskararen arrastorik, Arabako beste udalerri askotan bezala, eta ehun urte beranduago berreskuratzen hasi zen. "Bide horretan urrats esanguratsuak egin dituzte zuiarrek, eta hori da liburuan bildu nahi izan dudana; zenbat hobetu den udalerrian euskararen jakintzan eta erabileran", azaldu du Azkarragak ALEA FM saioan.

Euskalduntze prozesuan, bi eragile nabarmendu ditu urteetan egindako lanagatik. Izarrako eskola izan da protagonista nagusietakoa, batetik: "Paradoxikoa baldin badirudi ere, Zuian ondoko herriko eskola nabarmentzen dugu, eta ez bertakoa; hori izan da urte askoan gure eskolan euskaraz ikasteko eskubidea bermatua egon ez delako". Ehunka herritarrek zazpi kilometrora dagoen eskolan ikasi dute, nahiz eta herrian bertan eskola izan. "Euskararen zabalkundean asko lagundu du horrek. Hor ikasitako euskarak bermatu du gaur egungo Zuiako gazteek euskaraz jakin badakitela".

2020ko Zuia Euskaraz-eko irudia. GORBEIALDEKO EUSKARA ZERBITZUA

Zuian nabarmendu beharreko beste eragile bat euskaltegia izan da, Azkarragaren ustez. Azken urteetan AEKren bitartez eman dituzte eskolak: "Orain dela 40 urte helduak zirenak, eta hortik aurrera ere, gure herriko helduak euskaldundu ditu eta euskalduntzen jarraitzen dute herriko euskaltegian".

Eragile horiekin batera, besteak beste, Gorbeialdea Kuadrillatik egindako lana azpimarratu du Azkarragak. "Orain dela hamar bat urte erabaki zuten euskara teknikari bat behar zela, eta orduan euskara zerbait sinbolikoa izatetik plangintza batean izatera igaro da, baita udaletxean ere; asko dago egiteko, baina behintzat mahai gainean jarri da euskararen teknikari bat izateko beharra".

Erabilera erronka

Euskalduntzean bidelagun izan diren hamaika lekukorekin elkartu da Azkarraga ikerketa lana egiteko, eta guztiek "erabilera" dute kezka nagusia.

"Azken 40 urteetan Zuian euskararen ezagutza asko hobetu da, herritarren erdiak behintzat euskaraz ulertu egiten du, eta horrek esan nahi du zerotik %50era igaro dela. Erabilera ez dago zenbaki horietan, ordea, eta horrek markatzen du euskalgintzak duen erronka zein den", nabarmendu du. "Duela 40 urte ia ezinezkoa zen euskara entzutea gure herrietan, eta gaur egun entzuten da; oraindik erabileran kale egiten dugu, eta horretarako daude Euskaraldia moduko ekimenak, erabileran eragiteko". 2016an Soziolinguistika Klusterrak egindako kale-neurketak jasotakoaren arabera, behatutako hiztun kopuru osotik, %5,8k baino ez zuen erabili euskara.

Horregatik, Euskaraldia moduko ekimenek garrantzia berezia dute Euskal Herrian, haren esanetan, euskara kalean presente izan dadin. "Garaiak gogorrak dira, eta denok ikusi dugu euskarak bere leku bat galdu duela, tartean pandemia dela eta... horregatik euskara presente izan dadin egiten diren lan guztiak beharrezkoak dira".

"Garaipen txikiak"

Herri euskalduna berreskuratze bidean, "garaipen txikiz" osatutako bidea izaten jarraitu beharko duela gogoratu du Azkarragak, eta lan horretan ekarpen xume zein erraldoiekin Zuia euskaldunagoa izan dadin aletxoa jarri dutenentzat da liburua. "Izen batzuk behin eta berriz aipatzen dira liburuan, eta inportantea da azpimarratzea jende horrek Zuian izan duen garrantzia; eskertzekoa da militante sutsu batzuek lortu dutena gure herrian".

Zubizarreta eta Olarrari sariak

Alexandra Garibalen 'Plein plein plein d'animaux' eta Robert Louis Stevensonen 'Catriona' lanen itzulpenengatik jasoko dute saria Patxi Zubizarretak eta Xabier Olarrak, hurrenez hurren.

ERREDAKZIOA

2002 urteaz geroztik, Vitoria-Gasteiz Sariak ematen ditu Gasteizko Udalak, Euskara zerbitzuaren bitartez, haur eta gazte literaturako lanen euskararako itzulpen onenak nabarmentzeko. Aurtengo 17. edizioan, Patxi Zubizarreta eta Xabier Olarra itzultzaileek irabazi dituzte ostegunean banatutako sariak.

Hain zuzen ere, Alexandra Garibalen *Plein plein plein d'animaux —Animalia asko, pila bila*— izenburua duen liburuaren itzulpenagatik lortu du saria Ordizian jaio baina aspalditik Gasteizen bizi den Patxi Zubizarretak; 9.000 euro eskuratuko ditu. Jatorrizko liburuaren berezitasuna, hitz-jokoak eta umorea euskarara ekartzeko gaitasuna azpimarratu dituzte epaimahaiko ordezkariek. Gainera, nabarmendu nahi izan dute oso maila altuko itzulpena dela Zubizarretarena.

Patxi Zubizarreta idazleak irabazi du sarietako bat. WIKIPEDIA

Xabier Olarrak *Catriona* itzultzeagatik lortu du saria. IGELA

"Itzulpen borobila"

Xabier Olarra gipuzkoarrak, beste alde batetik, Robert Louis Stevensonen *Catriona*-ren itzulpenagatik irabazi du saria; berak ere 9.000 euro eskuratuko ditu. Kasu honetan, egindako lanaren kalitatea eta itzulpenean lortutako hizkuntza-maila altua goraipatu dituzte. Epaimahaiaren hitzetan, "itzulpen borobila" da. "Euskara dotore eta, aldi berean, erraz eta lehen irakurketan ulertzeko modukoa da", azpimarratu dute.

Guztira, 29 lan aurkeztu dituzte aurten Vitoria-Gasteiz sarietara, azken edizioetan baino gehiago. Honakoak izan dira epaimahaikideak: Aintzane Atela Gurrutxaga, Patxi de Vicente Arbeloa, Karlos del Olmo Serna, Miren Ibarluzea Santisteban eta Mario Unamuno Plazaola. Zehazki, aurreko urteetan sarituak izandakoak dira epaimahaiko ordezkariak.

TXOTX EGIN!!

Araban, arabako sagardoa!

EUSKARALDIA

HARRIA HERRIA

Film laburrak Gaubeako zineman

Laburbiraren XVII. edizioan bederatzi film labur dira urte honetako protagonistak, guztiak 2018tik 2020ra bitartean egindakoak. Hauetariko batzuk 2019ko hainbat jaialditan aurkeztutakoak dira eta ikusleen artean arrakasta handia izan zutenak, besteak beste, *Anti*, *Pil-pil* eta *Harria herria* film laburrak. Emakume zuzendariek presentzia nabaria izango dute edizio honetan, izan ere zirkuitu ibiltaria osatzen duten 9 filmetatik 6 emakumeek zuzendutakoak dira. Hauetariko batzuk hasiberriak badira ere, badaude eskarmentu handiko sortzaileak ere. Ostiral honetan, abenduaren 4an, 19:00etan, Gaubeako udal zineman proiektatuko dira. Ondoren, Janire Etxabe zuzendariaren aurkezpena izango da.

HARRESI ARETOA

Gospel emanaldia Goiko Gelaren eskutik

Goiko Gela gospel talde donostiarra da. Jon Imanol Etxabe, Karlos Etxaniz, Santi Romano eta Olatz Otxoaren ahotsek osatzen dute, Iñaki Miguel pianistaren zuzendaritzapean. Gospela euskaraz eta ingelesez egiten dute, *southern gospel* zaporearekin. Abesti propioak eta moldaketak euskaraz, eta kanta originalak ingelesez egiten dituzte. Taldeko kideek diote gospel musika genero espiritual leherkorra eta ñabarduraz betea dela. "Gospelean, beltzen bluesa eta soula zurien countryarekin nahasten dira. Beste dimentsio batera eramaten zaituen zerbait magikoa da". Kontzertura joaten direnek genero horri buruz asko ikasiko dute. Aguraingo Harresi aretoan, abenduaren 5ean, 19:00etan, izango dira.

ANTTON ARANBURU

Istorio eta ipuin musikatuak

Antton Aranburu gasteiztarraren azken lanak *Kaos#Kosmos* du izena. Disko bikoitz honen abesti bakoitzak bere istorio edo ipuin propioa dakar. Hortaz, ikuskizun honetan literatura eta musika uztartuko dira. Aranbururen ahots eta gitarrari Amaia Cantero ere batuko zaio, ipuinak errezitatzeko eta bere koruekin abestiak kolore biziagoz jantziz. Horrez gain, proiektatuko diren irudiek eta hitzek ikuskizuna are erakargarriago bilakatuko dute. *Asteburu on pasa Salburuan* programaren barruan, 12 urtetik gorako umeentzat zuzendutako saioa eskainiko du Salburuko gizarte etxeak, abenduaren 6an, igandean, 19:00etatik aurrera. Sarreren salmenta *online*, ikuskizuna hasi baino ordubete lehenagora arte.

SARA ZOZAYA

Durangotik Amurriora

Durangoko Azoka aurten Euskal Herriko hamaika txokotara zabalduko da, eta hainbat kontzertu eskainiko ditu "Zu non, han da!" egitasmoaren bidez. Amurrio izango da eszenatoki horietako bat; Sara Zozayak kontzertua eskainiko du hurrengo astelehenean, abenduaren 7an, 19:00etan Burubio aretoan. Zozayaren lana aurten "Euskal Herriko eta estatuko proposamen fresko eta oparoenetako" gisa deskribatu dute. Orain itxi duen (I) ('Bat' gisa ahoskatu daiteke), bere bakarkako bigarrena da, eta pop alternatiboa eta erritmo elektronikoak euskal musikaren tradizioarekin uztartzen ditu. Zozayaren kontzertuaren aurretik, abenduaren 6an, Izate Faltsua eta Romeo taldeak igaroko dira Burubiotik.

TXALO PRODUKZIOAK

Ikasteko griña, Principalen

Frank, Unibertsitateko literatura irakasleari, ikasle berri bat etorri zaio: Rita, ile-apaintzailea. Ikasleak, Macbeth taberna baten izena dela uste du eta Hamlet, berriz, zerbeza marka bat. Irakaslea etsiak jota dagoen poeta da, amore emandakoa, baina Ritak ikasteko duen griña asetzeko prest dago. Ikasleak ikastea maite du eta irakasleak maitatzen ikasiko du. Sarritan ikaslea bera izan ohi da irakaslerik onena. Txalo Produkzioak antzerki taldearen eskutik, Aitziber Garmendia eta Joseba Apaolaza aktoreek eramango dute *Rita, arrastoan sartzen* Willy Russellek idatzi eta Begoña Bilbaok zuzendutako obra Gasteizko Principal antzokira. Abenduaren 10ean izango da, 19:00etan.

ZOZKETAK

PARTE HARTU www.alea.eus/zozketak

Irabazleak:
'Dylan dosia' ikuskizunerako sarrerak: Iñaki Agirresarobe Arzallus eta Susana Egia Albeniz.
Amorante eta Moxalen kontzerturako sarrera: Mila Zabala Markuleta.
ALEAren harpidetza baten irabazleak: Galder Auzmendi Perez, Maria Diaz de Lezana Merino eta Nagore Saez de Zerain.

Gorbeia zinemarako sarrerak

Sarrera bikoitza

Gorbeia zinemetan, *Ane*, *Erlauntza*, *Hil Kanpaiak* edo beste edozein pelikula ikusteko sarrera bikoitz bat zozkatzen du ALEAk. Parte hartu abenduaren 8a baino lehen; 12:00ak arte. Hilaren 11ko ALEAn publikatuko dugu irabazlearen izena.

2.edizioa

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN

EUSKARALDIA
Gasteiz

BELARRIPREST

ARIGUNEA

AHOBIZI

15 egun euskaraz

2020ko azaroaren 20tik
abenduaren 4ra

Izen-ematea: _____

www.euskaraldia.eus
euskaraldiagasteiz@gmail.com
688 74 30 86

euskaraldia.gasteiz
@EuskaraldiaGast
@Euskaraldia Gasteiz

"Beti ondoan izango duzunarengan konfiantza izatea da gidatzen uztea".

Gallo eta Mario / *Surf egokituko munduko txapelduna eta haren laguntzailea*

EUSKADIKO PENTSIOAK, BANAKAKO BGAEA

BIZIARO AURREIKUSPEN-PLANAK

Bidelaguna izatearen balioa.
Ezagutu inbertsioa zure neurrira dibertsifikatuz zurekin eboluzionatzen duen plana. Gainera, abantaila fiskalak lortu ahal izango dituzu ekarpen bakoitzeko*.

LABORAL kutxa

Bada beste modu bat

* Espainian merkaturatzen diren aurreikuspen-plan guztiek abantaila fiskalak dituzte. EUSKADIKO PENTSIOAK BGAE-REN BAZKIDE SUSTATZAILEA: CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO • ONDAREAREN GESTOREA: CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO • AUDITOREA: PRICEWATERHOUSECOOPERS AUDITORES SL. Kontsultatu parte-hartzaileentzako funtsezko datuen agiria gure bulegoetan edo https://www.laboralkutxa.com/eu/partikularrak/aurrezkia/planak/aurreikuspen-planak webgunean.